



KANADAKO ERREALITATEARI HURBILTZEKO AUKERA BERRIA FRANÇOIS VAILLANCOURT IRAKASLEAREN ESKUTIK

Sistema federalen ezaugarriak ezagutzen joateko gure jarduenekin jarraitu nahi dugu. Oraingo honetan, UPV-EHurekin batera sortutako kolaborazioan, Mahai inguru bat antolatu dugu, datorren asteartean, hilaren 12an, François Vaillancourt, Montrealeko Unibertsitatean katedradun ohorezkoarekin, sistema federaletako finantziazio sistemetan aditua denarekin. Vaillancourt irakaslearen eskutik aukera izango dugu ezagutzeko nolako sistema ezarrita dagoen Kanadan Federazioa zein lurraldeak finantziatzeko eta nola banatzen diren diru publikoak bataren eta besteen artean.

LURRALDEEN FINANTZIAZIOA KANADAKO SISTEMA FEDERALEAN ASTEARTEA, AZAROAREN 12, 18:30etan, BILBOKO ENPRESA IKASKETEN ESKOLA OHIKOA (UPV/EHU). ARETO NAGUSIA, ELKANO KALEA, 21

Errealitate politiko hurbilari arreta jartzen asteari hasiera eman nahi duzuenok aukera duzue Soziologia eta Zientzia Politikoko Euskal Elkarteak antolatzen dituen mahai-inguruak interesgarri izan daitezke –ondoan ematen dizuegu haien berri-, oraingo honetan hiru lurraldeetan ordu berean -18:30etan- (Donostiako Zuzenbide Fakultatean, Gasteizko Europa Jauregian eta Bilboko Burtsan) egingo direnak.

Era berean, jakinarazi nahi dizuegu, hurbil dugula **Euskal Herriko Federalisten urteko Bilkura Nagusia**. Asmoa dugu egiteko **Bilbon, abenduaren 3an, Abando Udal Zentroaren Ekitaldien Aretoan, Elkano kalean, 22an, 19:00etan**. Bilkura Nagusian interes handia duten gaiak aztertuko ditugu eta elkarteko kide guztiek dute aukera horretan parte hartzeko. Oraindik elkarteko kide ez bazara web orriaren bidez (www.federalistak.eus) egin dezakezu.